

**II - ARABAKO LURRALDE  
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA****IRURAIZ-GAUNAKO UDALA****Behin-behineko onespena ematea 2021eko ekitaldian kreditu gehigarri bidez aurrekontua aldatzeko espedienteari (3/2021 aldaketa)**

Iruraiz-Gaunako udalbatzak, 2021eko irailaren 7ko bilkura berezian, behin-behineko onespena eman zion 2021eko ekitaldiko aurrekontuan kreditu gehigarri bidez kreditu aldaketa hau egiteko espedienteari:

Kreditu gehigarria, honako aurrekontu aplikazioetarako:

920.120.00	2.759,95 euro. Kreditu gehigarria.
920.121.00	2.000,29 euro. Kreditu gehigarria.
920.121.01	3.397,10 euro. Kreditu gehigarria.
920.160.001	2.757,00 euro. Kreditu gehigarria.

Kreditu gehigarria gastu orokorretarako diruzaintzako gerakin positiboaren kontura finantzatuta dago. Zenbatekoa: 10.914.34 euro.

Arabako Toki Erakundearen Aurrekontu Egonkortasunaren eta Finantza Iraunkortasunaren 38/2013 Foru Arauak ezarritakoari jarraituz, aurrekontu aldaketaren espediente osoa helarazi zaio Arabako Foru Aldundiko Toki Erakundearen Sailari.

Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauan eta Toki Ogasunak arautzeko Legearen testu bateratua onesten duen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak 169. artikuluan xedatutakoaz baliatuz, jendaurrean jartzen da hamabost egun baliodunez, eta udalbatzari aurkeztutako erreklamazioak eta iradokizunak onartuko dira epe horretan.

Jendaurrean jartzeko epea amaitu eta erreklamaziorik aurkezten ez bada, espediente behin betiko onetsizat joko da.

Iruraiz-Gauna, 2021eko irailaren 8a

*Alkatea*

*SUSANA DÍAZ DE ARCAYA CUBILLO*